

OLDOZMIENAK

OTSALAR'EK

Goethe'rengandik jakin nun:
"Idazle abertzalea,
abertzale martirea".
Ala ere, nik euskeraz nai jardun.

—ooOoo—

Egin dezagun an ta lan
euskeraren baratzean,
gaizka ernetu artean.

—ooOoo—

Euskera ezingo litzake lurperatu,
geuk lurrik ixuritzen ez-badiogu

—ooOoo—

Buru gabeen eztabaidak,
alkartu ezindakoak.
ondamendiaren gurasoak.
Abertza'e sakabanatuak,

—ooOoo—

Landu gobeko azke izan naiak
oñarri gabeko itxaropenak,

buru ariñen ames iraunkaitzak,
Egizko abertzaleak daraman ikuskantza:
euskeraz pentsa, euskeraz mintza,

—ooOoo—

Aberri gabeko azkatasunak
ez-badu merezi;
euskera gabeko aberriak
gutxiago noski.

—ooOoo—

Euskadi'k nai badugu bizi,
alkartu gaitezen maitetasunez anaiki
euskera dugularik aintzinean beti.

—ooOoo—

Geroko obeari begira,
euskera, il-zorira.

Otsalar.

(Urrengo zenbakian argitalduko dira, doñu ta guzti, Eibar'ko Gardaramiño-magalean 1954' garrenian egindako olerkiak. "Biotz-min" izenduta, Maitale'k).

go dator. Orduan ezta biar ezetariko O.N.U. bazpatzik... ez... Orduan, "Junta Mundial de la Razón" edo antzerako bat sortu biarko. Mai aundi baten batu, eta ben, ben bakotxaren errezoiak azaldu. Batzorde orrek egizko ebankuntza egitean, bakotxari berena emon eta kitu. Ostera... "atomika" orren errezoiak itz egin biarko dabe.

Aparicio..., ondo da España zeure aberriya, zuk maite izatia. ¡A! baño utxi guri be, geure Aberriya eta bere izkeran maitazaliak izaten... Orixe dalako benetako "demokrazia"... Zuk erderia maite dezu. Guk geure Euzkeria be, maite dogu. Utzi ba bakoitxaren lagiari eta ez iñor iraunduten agertu.

Zuretzat eta españarrentzat: "Viva España". Mexicatarrentzat: "Viva México". Francetarrantzat: "Vive l'France", eta guretzat euzkotarrantzat: "Gora Euzkadi". Ezetariko "atomika", barik...

"OGONOPE".

Caracas'era Aparicio'ri bialiten dautzadan idazki-edegi-au, baton-batek erderalduko aldautza, berari.